

ZER BERRI AIZARNAZABALEN

2013 UZTAILA

"JAN SANO ETA BIZI POZIK" AZOKA ESKERTZA

Udaleko Ingurumen eta nekazaritza sailak II "Jan sano eta bizi pozik" azokan izan zuen erantzunagatik eskerrak eman nahi dizkigu herritar guztioi, eta bereziki antolakuntzan eta egunean bertan hau aurrera ateratzeko lanean jardun ziren guztie.

UZTAILEAN UDALEKUAK

Uztailarekin batera udalekuak ere martxan dira. Uztailaren 1tik 30era iraungo du, goizeko 10:00etatik 13:00etara. 34 umek parte hartuko dute eta 4 begirale arduratuko dira umeetaz eta udalekuaren martxa egokiaz.

EKAINEKO I. BOLO TXAPELKETAKO IRABAZLEAK

Kirol Elkarrekin ekainean antolaturiko I. BOLO TXAPELKETAKO irabazleak :

1. Xabier Gonzalez- Iñaki Etxabe (20)
2. Ainhoa Etxabe- Ibon Salaberria (19)
3. Iñaki Peña- Joxe Mari Etxabe (13)

Uztailleko pintxo poteo aurretik beste txapelketa bat ospatuko da.

KZ-GUNEKO BISITA EGUNA

Uztailleko begiralearen bisita eguna uztailaren 18an izango da , 9:00-10:45etara



KULTURA SAILA

UZTAILA

UZTAILAK 5, OSTIRALA SAMIEL JAIEN BILERA

Uztailak 5, arratsaldeko 19:00etan, Lauburuko bilera gelan Samiel jaiak antolatzeke bilera ospatuko da.

UZTAILAK 6, LARUNBATA ZUBIALDEKO EGUNA- EGITARAUA

Egun guztiak zehar **HERRIKO BERTSOLARI eta TRIKITILARIAK**

Eguerdiko 13:00etan **HERRI KIROL EMANALDIA**

- Harrijasotzailea: Jesus Mari Izeta

- Aizkoran: Xabier Bergara eta Esteban Zumeta

Eguerdiko 14:00eta **BAZKARIA**

Paella

Oilaskoa

Brazo Gitanoa helatuarekin

Kafea, kopa eta purua, txanpaina barne

Txartelak salgai daude Uztarri, Zahar Etxe eta Xiete tabernan **uztailak 3, asteazkenerarte**.

14 urte azpikoz umeak dohainik i bazkaria gurasoekin baldin badoaz. Txartela 25 euron salgai dago.

UZTAILAK 7, IGANDEA XVII. KINTOPEKO IDI PROBA

Uztailak 7 eguerdiko 12tan XVII. KINTOPEKO IDI PROBA-ren apuntea izango da udaletxean. AIPE elkarteak antolatzen du. Probak uztailaren azkenaldian izango dira, programa aterako dira.

UZTAILAK 10, ASTEAZKENA SAN KRISTOBAL EGUNA

San Kristobal jaien antolakuntzak ondorengo oharra zabalarazteko eskatzen du: "Jaietan auzoko zelai eta bazterrak zaintzea zabor eta hondakinez, zakarrontziak erabili eta bazterrak txukun mantentzeko".

XIETE TABERNAREN ITXIERA

Xiete Taberna azken urteotan edo beharbada garai batean "Bar Xiete" bezela ezagunago zen gure herriko taberna uztailaren 19an istear da.

Jexux Mari Peña, ugazaba eta negozio burua, jubilatzean da eta negozioaren itxiera garaia iritsi da. Hau dela eta lerro hauetaz baliatuz, Jexux Mari berak, herritar guztioi orohar bere agurra eta eraberean bere esker ona adierazi nahi digu eta bereziki urte guzti hauetan lehenxeago edo geroxeago, uneren batean, beren bezero izan diren guztiei, herritar nahiz kanpoko.

Mila esker guztioi!!!

UZTAILAK 20 I.GO AIZARNAZABALGO GIPIZKOAKO SAGARDOGILEEN DASTAKETA

Lehenengo aldia izango da Aizarnazabalen Gipuzkoako Sagardogileen Dastaketa antolatzen dela. Udaleko Ingurumen eta Nekazaritza sailaren eskutik izango da.

Uztailaren 20an izango da. Arratsaldeko 18.30etan emango zaio hasera herriko plazan.

Sagardogileak 16 izango dira:

"Aburuza" (Aduna)	Artzain (Lasarte)	"Bereziartua" (Astigarraga)	"Calonge" (Igeldo)
"Itxasberri" (Hernani)	"Izeta" (Aia)	"Lizeaga" (Astigarraga)	"Mendizabal" (Astigarraga)
"Oianume" (Urnieta)	Petritegi (Astigarraga)	"Satxota" (Aia)	"Zalbide" (Abaltzisketa)
"Akarregi" (Hernani)	"Gaztañaga" (Andoain)	"Egiluze" (Orereta)	"Alorenea" (Astigarraga)

Pintxoak egongo dira salgai eta herriko trikitilariarekin, lugatz Oleaga eta Ane Aizpurua, girotuko da dastaketa.

LIBUTEGIAREN ITXIERA EGUNA

Uztailaren 24an itxiko da irailak 2 arte, honekin batera ludoteka eta Informatika gela.

UDAL GAIAK

AIZARNAZABALGO UDALA ESPAINIAKO BANDERA JARTZERA BEHARTUA

Espainiako Gobernuaren banderen legea 30/1981-ak, Aizarnazabalgo udala espainako bandera jartzera behartzen du. Aldez aurretik, herritar guztiei jakinarazi nahi diegu gure borondatearen aurka jartzera behartuak gaudela, inposaketa hutsa izan baita.

Honela izan da prozesu guztia:

1.- 2012ko ekainaren 1ean, Espainiako Gobernuak Banderen legearen berri eman zuen eta Espainiako bandera jartzeko lehen abixua.

2.- Aizarnazabalgo udalak hau bete ez zuelako, Espainiako Gobernuak epaitegian sartu zuen 2012ko uztailearen 20an.

3.- Epaileak espedientea bidaltzeko eskatu zion Aizarnazabalgo udalari. Irailaren 4an bidali zen.

4.- Epaitegitik, dokumentazioa estatura bidaliko zenaren notifikazioa jaso zen, Irailaren 25ean.

5.- Aizarnazabalgo udalak, 2012ko urriak egin zen herri batzar eta auzo bileretan honen berri eman zuen. Momentuan genituen aukerak planteatu ziren honakoak izanik:

a) Abokatu bat kontratatu eta errekurtsio bat aurkeztu. Kostua, 4.000-5.000 euro ingurukoa. Baina aldez aurretik, galdutako epaiketa baten aurrean aurkitzen ginela. Epaiketa honek hilabete gutxi batzuk atzeratzeko bakarrik balioko zuen.

b) Sententzia iristean Espainiako bandera Aizarnazabalgo udaletxeko balkoian ipini. Honen aurka, gurea ikurriña dela garbi erakutsi, herriko plazan ikurriña eta lema bat pintatuz. Baita ikurriñaren eguna ospatu ere.

Jasotako iritzien gehiengo batek bigarren aukera hautatu zuen.

6.- Donostiako epaitegiak, 2013ko maiatzaren 8an sententziaren jakinarazpena.

7.- 2013ko maiatzaren 29an egin zen udal osoko bilkuran honakoa erabaki zen:

a) Aizarnazabalgo udaletxeko balkoian bost bandera ipintzea. Aizarnazabalgoa, Gipuzkoakoa, Espainiakoa, europakoa eta ikurriña.

b) Plaka bat ipintzea aizarnazabalgo udaleko fatxadan honakoa esanaz: "Espainiako bandera jarri da Udaletxeko balkoian, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako 1 zenbakiko Epaiak, 2013ko maiatzaren 8ko 135/2013 Sententziaren bidez agindua eman duelako, Aizarnazabalgo udalaren borondatearen aurka."

Gauza guztien gainetik, herritar orok jakin dezala Espainiako Gobernuaren inposaketa izan dela, Aizarnazabalgo udalaren eta herriarren erabakitzeko eskubideak zapalduz.

Gurea ikurriña delako.

SAN KRISTOBAL JAIK 2013

SAIATZ AUZOA

UZTAILAK 6, LARUNBATA

Iluntzeko 20:00etan TXUPINAZOA

Gaueko 23:00etan ERROMERIA IZER eta ALABIER-EKIN

Amaitzean BARATXURI SOPA, LO ONDO EGITEKO

UZTAILAK 7, IGANDEA

Eguerdiko 12:00etan HITZAREN LITURGIA auzoko ermitan.

Ondoren TXIKITEOA ANSORREGI eta NARBAIZA trikitilariak alaituta

Arratsaldeko 18:00etan HERRI KIROL JAIALDIA.

Harri jasotzen: IZETA anaiak

- JOXERRAMON-JEXUX MARI IRURETAGOIENA

Aizkoran:

- FAUSTO MUGERTZA eta LUIS TXAPARTEGI

Jarraian eta afal ondoren, ERROMERIA ANSORREGI eta NARBAIZA-rekin

IRAILAK 10, ASTEAZKENA SAN KRISTOBAL EGUNA

Eguerdiko 12:00etan MEZA NAGUSIA auzoko ermitan.

Ondoren, kotxeen bedeinkapena

Eguerdia alaitzen, ARITZ-IRATI trikitilariak

Gaueko 22:30ak aldera ERROMERI alai AZTIAZARAN II eta IZER-ekin

jaiei amaiera emateko eta datorren urterarte agurtzeko.